

Erref. kodea: LAF-212-137

Izenburua: Manuel Lekuonaren gutuna

Jean Haritzelhar-i

+

Andoaindik 1970'gn Martxoaren 10'ean

Jean Haritschelhar Jaunari

ANGLET'era

Agur, adiskide: Artuko zenduan noski, gure atzenekoaren aurreko Batzarrean nik Euskaltzaindiari egin nion nere iru urteko kontu-ematea. Bainan, bear bada, ez duzu jakin, orren ondorio bezela, azkeneko Batzarrean Euskaltzain Urgazle batek - Kintana Jaunak - nere dimisionea eskatu zuala.

Generalitate batzuek eman zituan, eskabide ori egiteko: Euskaltzaindiak aspaldi ontan ez duala aurrerarik egiten etab.

Eta nik orduan, kargu oiek eta gainerako nere kontrako gauzak, eskribuz ezarri zituzala eskatu nion, nik ere nere deskargoa eskribuz egin nuan bezela; eta Euskaltzaindiak aztertuko dituala denak, nere deskargoa eta aren kargoak.

Kintana Jaunak bidali du bere kargu-papera; eta igorriko zaitzute.

Ba dakit lanpetua zabiltzala aldi ontan, eta, bear bada, orregatik etzaitugu ikusi azkeneko Batzarretan. Bainan orain eskuartean darabilgun auzi ontarako nai-ta-nai-ez emen bearke dezu Lendakari Ordeko bezela. Ortarako, zuk esan, noiz izango zeran libre. Eta orduan egingen da Batzarra.

Batzarra, beste egunetatik kanpo egin bear litzake; eta Euskaltzain jatorren artean bakarrik; bozak eman bearke bait dira, eta bozkunak bakarrik konbeniko dan an egon ditezen.

Batzar ortan berean, h-ren auzia ere uki bearke da, edo litzake. Bozetara au ere, eta pakezko giro polit batean; eta gauza zain-zainetik azterturik: ea batasuna delakoa ain gauza presakakoa den ala ez; eta ze oinarritan egin bearke den: h-rekin, Arantzazun askok eskatu zuten bezela; ala h-rik gabe, leen zan bezela gure artean; ala h guti batzurekin orain askok eskatzen duten bezela (San Martinék oien artean).

Mitxelenak igorri du aurrerapen bat gauza oiei buruz. Berak Arantzazuko h guztiak nai lituzke. Sistemaz, oso sistematikoa dirudi gauza, bainan praktikan ikusi bear - gaur gauza dagon bezela, batez ere - . H-rik gabeko berreun urteak Bizkaian eta Gipuzkoan indar aundia dute.... Zuek ikusi.

Zu ikusi-zai gelditzen da zure asiskide

Assuel Pehury

Handwritten notes in the top-left quadrant, including a large number '80' and some illegible scribbles.

Handwritten notes in the bottom-left quadrant, including a large number '80' and some illegible scribbles.

Faint, illegible text in the top-right quadrant, possibly bleed-through from the reverse side of the page.

Faint, illegible text in the bottom-right quadrant, possibly bleed-through from the reverse side of the page.

